



Uztailaren 5eko 11/1989 Gipuzkoako Hazienda Lokalen FORU ARAUA Erregulatzailea.¹

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. TITULUA: APLIKAZIO EREMUA.....	4
1. artikulua.....	4
II. TITULUA: UDALERRIAK	4
I. KAPITULUA: BALIABIDEEN ZERRENDAKETA.....	5
2. artikulua.....	5
II. KAPITULUA: ZUZENBIDE PRIBATUKO SARRERAK.....	5
3. artikulua.....	5
4. artikulua.....	5
5. artikulua.....	6
III. KAPITULUA: TRIBUTU PROPIOAK	6
1. Sekzioa: Arau orokorrak.....	6
6. artikulua.....	6
7. artikulua.....	6
8. artikulua.....	6
9. artikulua.....	7
10. artikulua.....	8
11. artikulua.....	8
12. artikulua.....	8
13. artikulua.....	9
14. artikulua.....	9
15. artikulua.....	11
16. artikulua.....	11
17. artikulua.....	12
18. artikulua.....	12
18. bis artikulua.....	13
2. Sekzioa: Zergak.....	13
19. artikulua.....	13

¹ Azaroaren 27ko 1.202/2001 Foru Aginduak, hainbat zerga arautan jasotako zenbatekoak pezetatik eurora aldatu eta aldaketa horri buruzko arauak ematen dituenak, xedatutakoari jarraiki, Foru Arau honek pezetatan jasotzen dituen zenbateko guztiak eurotara aldatuak geratzen dira. (Abenduaren 13ko GAO, 238. zk.a)



3. Sekzioa: <i>Tasak</i>	13
1. Azpisekzioa: Xedapen Orokorra	13
20. artikulua	13
2. Azpisekzioa: Egitate zergagarria	19
21. artikulua	19
22. artikulua	20
3. Azpisekzioa: Sujetu pasiboak	20
23. artikulua	20
4. Azpisekzioa: zenbatekoa eta sortzapena	21
24. artikulua	21
25. artikulua	23
26. artikulua	24
27. artikulua	24
4. Sekzioa: <i>kontribuzio bereziak</i>	25
1. Azpisekzioa: xedapen orokorrak	25
28. artikulua	25
2. Azpisekzioa: egitate zergagarria	25
29. artikulua	25
30. artikulua	25
3. Azpisekzioa: sujetu pasiboa	26
31. artikulua	26
4. Azpisekzioa: oinarri ezargarria	26
32. artikulua	26
5. Azpisekzioa: kuota eta sortzapena	27
33. artikulua	27
34. artikulua	28
6. Azpisekzioa: ezarpena eta antolamendua	29
35. artikulua	29
36. artikulua	29
7. Azpisekzioa: herritarren lankidetzak	29
37. artikulua	29
38. artikulua	30
IV. KAPITULUA: TRIBUTU KONTZERTATU, EZ-KONTZERTATU ETA GAINERAKO SARRERA PUBLIKOETAKO PARTAIDETZA	30
39. artikulua	30
40. artikulua	30
41. artikulua	30
V. KAPITULUA: DIRULAGUNTZAK	30
42. artikulua	30
VI. KAPITULUA: PREZIO PUBLIKOAK	31
1. Sekzioa: <i>xedapen orokorra</i>	31
43. artikulua	31
44. artikulua	31
2. Sekzioa: <i>ordaintzera behartuak</i>	31
45. artikulua	31
46. artikulua	31
3. Sekzioa: <i>zenbatekoa eta ordaindu beharra</i>	32
47. artikulua	32
48. artikulua	32
4. Sekzioa: <i>kobraketa</i>	32
49. artikulua	32
5. Sekzioa: <i>finkapena</i>	33
50. artikulua	33
VII. KAPITULUA: KREDITU ERAGIKETAK	33
51. artikulua	33
52. artikulua	34
53. artikulua	35
53 bis artikulua	35
53 ter artikulua	36



III. TITULUA: UDALEZGAINDIKO ENTITATEAK.....	36
54. artikulua.....	36
55. artikulua.....	36
56. artikulua.....	37
57. artikulua.....	37
IV. TITULUA: UDALA BAINO LURRALDE EREMU TXIKIAGOKO ENTITATEAK	38
58. artikulua.....	38
XEDAPEN GEHIGARRIAK	39
Lehena.....	39
Bigarrena. (indargabetua).....	39
Hirugarrena.....	39
Laugarrena.....	40
Bosgarrena.....	40
XEDAPEN IRAGANKORRAK.....	41
Lehena.....	41
Bigarrena.....	42
Hirugarrena.....	42
INDARGABETZE XEDAPENA	42
AZKEN XEDAPENA.....	42



ATARIKOA

Kontzertu Ekonomikoak, behin abenduaren 28ko 39/1988 Legean aurrikusi zergetako sistema lokal berrira egokitzeko aldarazi ondoren, Hazienda Lokalen sarrerak aurrikusten ditu zergetako udal figura nagusiak erregulatuz.

Foru Arau honek batez ere Udal Haziendako baliabideak hartzen ditu kontutan nahiz eta III. eta IV. Tituluak Udalezgandiko Entitateei eta Udala baino Lurralde eremu txikiagokoei dedikatu.

Baliabide tributario eta ez tributarioen ordenamenduaren barruan azken horien artean ondarezko eta zuzenbide pribatuko bestelako sarrerak aurrikusten dira, bai eta subentzioak, kreditu eragiketa, isun eta zehapenen emaitzak, eta Zuzenbide Publikoko gainerako prestazioak.

Zerga baliabideei dagokienean horien ordenamendua egiten da dauden tributua erraztea lortuz nahiz eta Zerga bakoitzerako arauketa Foru Arauetarako utzi.

Zerga baliabide hauek hurrengo zergen inguruan kokatzen dira, beharrezko 3 zerga: Ogasun Higiezinaren gaineko Zerga, Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga eta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, eta aukerako 2 zerga: Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta Hirilurren balioaren gehikuntzaren gaineko Zerga.

Aldi berean, tasa eta prezio publikoen arteko desberdintasuna ezartzen da, prezio publikoa errealitate ekonomikoari egokitzeko ahalbide handiagoa duen baliabide gisa agertuz.

Azkenik, Tributu kontzertatu eta Ez-kontzertatueterako partehartzea erregulatzen da, Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorretan aurrikusitakoaren arabera ezarriz horien xedea.

I. TITULUA: APLIKAZIO EREMUA

1. artikulua.

Honako Foru Araua hau, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kokaturiko Udal, udalezgandiko Entitate eta Udala baino eremu txikiagoko gainerako Entitateei aplikatuko zaie, Nazioarteko Itun eta Hitzarmenen kaltetan izango ez delarik

II. TITULUA: UDALERRIAK



I. kapitulua: Baliabideen zerrendaketa

2. artikulua.

1. Gipuzkoako udalerrien Hazienda, jarraiko baliabideok osotuta egongo da.
 - a) Beren ondare eta Zuzenbide pribatuko gainerakoetatik etorritako sarrerek.
 - b) Zerga, tasa eta kontribuzio berezietan sailkaturiko tributu propioek.
 - c) Tributu Kontzertatuetan, Ez-kontzertatuetan eta gainerako sarrera publikoetan dituzten partaidetzak.
 - d) Dirulaguntzak.
 - e) Prezio publikoen kontzeptupean jasotakoak.
 - f) Kreditu eragiketen emaitzak.
 - g) Dagozkien eskumenen eremuan izandako isun eta zehapenen emaitzak.
 - h) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioek.
2. Aurreko atalean aurrikusitakoaren arabera, Udalerrien Haziendek, Zuzenbide publiko sarrera gisa, jaso behar dituzten tributu eta zenbatekoak kobratzeko, harako Haziendak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haziendarako legalki ezarritako eskumen eta onurabideak izango ditu eta, kasua balitz, dagozkion administrazio prozeduren arabera ihardungo du.

II. kapitulua: Zuzenbide pribatuko sarrerak

3. artikulua.

1. Gipuzkoako udalerrien Zuzenbide pribatuko sarrerak, beren ondaretik etorritako edozein izaerazko etekinek edo emaitzek eta, baita ere, jaraunspen, legatu edo dohaintza tituluen eskuraketek osatzen dituzte.
2. Ondorio hauetarako, Udalen ondareztat, beren jabetzapeko ondasunak hartuko dira, eta baita, balioztapen ekonomikoa dutelarik, titular izan dadineko ondasun edo pertsona eskubideek ere, beti ere, batzuk zein besteak erabilera edo zerbitzu publikoari dagozkionak ez direnean.
3. Ez dute inoiz Zuzenbide pribatuko sarrera-izaerarik izango, edozein kontzeptu dela bide, jabari publikoko ondasunetik erator daitezenez.

4. artikulua.

Kapitulu honetan barnesarturiko Udal Haziendako eskubideen eraginkortasuna, Zuzenbide pribatuko arau eta prozeduren peko dela burutuko da.



5. artikulua.

Ondare kontsiderazioa izan dezaten ondasun eta eskubideen eskualdaketa eta kargetatik eratorritako sarrerak ezin izango dira gastu arrunten finantzaketarako erabili, salbu eraikigarri ez diren bide publikoen enparauko lursailak edo udal zerbitzuetan erabiliezineko efektuen kasua denean.

III. kapitulua: Tributu propioak

1. Sekzioa: Arau orokorrak

6. artikulua.

Foru Arau honen arabera, Udalek ezar ditzaten tributuek, edonola ere, jarraiko printzipio hauek errespetatu beharko dituzte:

- a) Udal barrutitik kanpo kokaturiko ondasunak garatutako iharduerak, sortutako etekinak edo eta eginiko gastuak kargapeko ez egitea.
- b) Udal barrutitik kanpo eginiko edo burututako negozio, ekintza edo egintzak halakotzat ez kargatzea ez eta aipaturiko lurraldean sortuak edo betetzekoak izan ez daitezen ondasunen, eskubideen eta betebeharren erabilera edo eskualdaketa.
- c) Pertsona, merkatalgai zein zerbitzu eta kapitalen zirkulazio askeari eragozpenik ez ezartzea edo eta pertsonen egoitza ezartzean nahiz Enpresa eta kapitalak egoitza kokatzean benetako eraginik ez izatea, eta guzti hori Udalek beren barrutiko hiri antolamendua bideratzearentzat oztopo izango ez delarik.

7. artikulua.²

1. Gipuzkoako udalerriei dagokie, foru arau honetan ezarritakoaren barruan, beren tributuek ordainaraztea, kudeatzea, likidatzea, ikuskatzea eta biltzea, udal zergen foru arau erregulatzailaetan eta horiek garatzeko gainerako xedapenetan ezar daitezkeen berezitasunak eragotzi gabe, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori garatzeko emandako xedapenetan aurreikusitakoaren arabera.

2. Haien ordenantza fiskalen bitartez, Gipuzkoako udalerriek aurreko apartatuan aipatutako araudia egokitu ahal izango dute haietako bakoitzaren antolaketa eta funtzionamendu erregimenera. Dena den, egokitzapen hori ezin izango da araudi horren eduki materialaren aurka joan.

8. artikulua.³

² Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako hamargarren xedapenaren 1 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



1. Udalak eta Foru Aldundia lankidetzan arituko dira, bidezko hitzarmena izenpetuz, tributuoak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeari dagokion guztian.

2. Aurrekoa hala izanik ere, Administrazio horiek:

a) Batak besteari tributuen inguruan eskatzen dion informazio guztia emango diote elkarri eta, kasua balitz, beharrezkoa den interkomunikazio teknikoa ezarriko dute horretarako.

b) Norbere egitekoak betetzeko behar duten laguntza edota haietariko edozeinek udal zergei buruz eskatzen dituen datu eta aurrekari guztiak emango dizkiote elkarri, arau bidez ezartzen den eran.

c) Berehala jakinaraziko dizkiote elkarri, arau bidez ezartzen den eran, haietariko edozeinentzat zerga alorrean garrantzitsuak izanik, zergak ikuskatzeko zerbitzuen egiaztapen eta ikerketa jarduketan ondorioz agerian jartzen diren egitate guztiak.

d) Helburuak, sektoreak eta hautaketa-prozedurak modu bateratu edo koordinatuan ikuskatzeko planak egin ahal izango dituzte.

Artikulu honetan aurreikusitakoa ulertuko da zerga informazioaren erabilerak eta lagapenak ezarria duten lege araubidea eragotzi gabe.

3. Ikuskapen edo bilketa exekutiboko jarduketak udalerraren zuzenbide publikoko sarrerei buruzkoak direnean eta udalerritik kanpo egin beharra gertatzen denean, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eremuan egingo ditu udal entitateak. Gainerako kasuetan, ezarrita dauden edo ezartzen diren lankidetzak formulei jarraituko zaie, legeria aplikagarriaren arabera.»

9. artikulua.⁴

1. Udalerriek, beren eskumenak erabiliz eta foru arauen nahiz nazioarteko itunen esparruan, zerga onurak eman ahal izango dituzte beraiei dagozkien tributuetan, euren aurrekontuen kontura beren gain hartuz.

Ondorio horietarako, udalerriek beharrezko erabakia hartuko dute zerga onura horiek beren lurralde mugen barruan izaera orokorrean aplikatzeko. Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

³ 8. artikulua hau abenduaren 1eko 8/2006 FORU ARAUAK, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituenak, aldatzen du bere 5. artikuluan. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2006-12-12) ondorengo egunean sartzen da indarrean.

⁴ Artikulu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 1. artikulua bat zerbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).



2. Bereziki, ordenantza fiskalek finkaturik utzi ahal izango dute zein baldintza bete behar diren kuotari 100eko 5erainoko hobaria aplikatzeko, subjektu pasiboek aldizkako epemuga duten zorrak finantza entitateetan helbideratzen dituztenean, ordainketak aurreratzen dituztenean edo sarreraren bilketan laguntzea dakarten jarduketak egiten dituztenean.

3.⁵ Era berean, toki entitateek hobariak onetsi ahal izango dituzte foru arau honetako III. Kapituluko 3. Sekzioaren arabera ezarritako udal tasen zenbatekoaren gainean.

10. artikulua.⁶

Errekarguak eta berandutza interesak Foru Ogasunaren zergetarako ezarritako kasu, modu eta zenbateko berberetan exijitu eta zehaztuko dira udal zergak eta udalerrien zuzenbide publikoko gainerako diru sarrerak ordainaraztean.

Ordenantza fiskalek hala jasotzen badute, ordainketak geroratu edo zatikatzeko erabakiak borondatezko epean eta ordenantzak aurreikusitako baldintza eta moduetan aurkeztutako eskaerei dagozkienean, erabaki horietan ez da berandutza interesik exijituko, baldin eta haiei dagozkien zorrak aldizkako epemuga duten eta kolektiboki jakinarazi beharrekoak diren zorrak badira eta horiek guztiak sortzapenaren ekitaldi berean osorik ordaintzen badira.

11. artikulua.⁷

Udal zergen alorrean, Zergen Foru Arau Orokorrean eta hori osatu eta garatzen duten xedapenetan jasotako urraketa eta zigor erregimena aplikatuko da, foru arau honetan edo udal zergei buruzko foru arauetan jasotako zehaztapenak eta, bidezkoa denean, haiek babesteko eman diren ordenantza fiskaletan jasotzen diren zehaztapenak betez.

12. artikulua.⁸

⁵ Apartatu hau 2023ko urtarrilaren 17ko 1/2023 Foru Arauaren 7. artikulua gehitu du. Aipatutako foru arauak 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2023/01/23ko GAO).

⁶ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2008-07-11ko GAO). Aldaketak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.

⁷ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorrearen amaierako hamargarren xedapenaren 2 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

⁸ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorrearen amaierako hamargarren xedapenaren 3 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



Udal zergen kudeaketa, likidazio, ikuskapen eta bilketari dagokienez, Zergen Foru Arau Orokorrak III. tituluaren I. kapituluko 2. sekzioan jasotako zergapekoei informazioa eta laguntza emateko betebeharra eskumenaren jabe den entitate titularrari dagokio.

13. artikulua.⁹

1. Udal bakoitzari dagokio zergak aplikatzean emandako egintzak zuzenbidean erabat deusezak adieraztea eta berrikustea, Zergen Foru Arau Orokorrak V. tituluaren jasotako kasuetan eta prozeduren arabera, ondorengo apartatuetan xedatutakoa eragotzi gabe.

2. Zergen Foru Arau Orokorraren 227. eta 228. artikuluetan xedatutakoari egokitu behar zaizkio udal zerga alorrean egon daitezkeen okerreko sarreraren itzulketa eta akats materialen zuzenketa.

3. Inoiz ere ezin izango dira berrikusi sententzia judicial irmoz baieztatutako administrazio egintzak.

4. Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusitako kasuetatik kanpo, udalerriek ezingo dituzte deuseztatu beraiek eskubideak aitortzeko eman dituzten egintzak eta, horien deuseztapena lortuko badute, alde zuzenetik herri onurarako kaltegarritzat hartu beharko dituzte eta administrazioarekiko auzien bidean inpugnatu jurisdikzio horretako legearen arabera.

5. Tokiko entitateen zuzenbide publikoko gainerako diru sarreraren kudeaketa alorrean eman diren egintzak ere berrikuspen prozedura berezietan lotuta daude, aurreko apartatuetan jasotakoaren arabera.

14. artikulua.

1.¹⁰ Udalerriek udal zergen ezarpen eta eraginkortasunari buruz emandako egintzen aurka, berraztertze errekurtsua jarri ahal izango zaio, administrazioarekiko auzi errekurtsuaren aurretik, haiek ebatzi zituen organo berari, hilabeteko epean zergadunen erroldak edo matrikulak espresuki jakinarazi ondorengo egunetik aurrera.

⁹ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorraren amaierako hamargarren xedapenaren 4 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

¹⁰ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAU Aren 5. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2008-07-11ko GAO). Aldaketak 2009ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak ditu.



Aldizkako epemuga duten eta taldeka jakinaraztekoak diren zorren kasuan, errekurtsua borondatez ordaintzeko epean edo hori amaitu ondorengo egunetik aurrera kontatuko den hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da.

Aurreko paragrafoetan aipatutako kasuetan, interesatuak erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri ahal izango dio, aukeran eta administrazioarekiko auzi bideari ekin baino lehen, berraztertze errekurtsuaren ebazpen espresu nahiz tazituaren kontra, Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboari, hilabeteko epean jakinarazpenaren ondorengo egunetik aurrera.

Nolanahi ere, baldin eta udalerrriak sortu badu erreklamazio ekonomiko-administratiboak ebazteko organoa, horrexek izango du erreklamazio horiek ezagutzeko eskumena, organo hori sortzeko aplikatu den araudiari jarraituz.

2.¹¹ Ez da eskatuko zenbatekoa aurrez ordaintzea, udal zergen ezarpen eta eraginkortasunari buruzko egintzen aurka berraztertze errekurtsua edo, hala badagokio, erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzeko. Hala ere, errekurtsua edo, hala dagokionean, erreklamazioa jartzeak ez du kobrantzaren egintza administratiboa geldiaraziko, salbu zigorrak ordainarazten zaizkionean, non eta interesatuak ez duen eskatzen aurrez inpugnatutako egintza etetea, errekurtsua edo, hala dagokionean, erreklamazioa jartzeko epearen barruan. Etetea eskatzeko, ezinbestekoa izango da zerga zor osoaren adinako bermea aurkeztea. Horretarako, ondorengo bermeak besterik ez dira onartuko, eta haien artean aukeratu ahal izango du errekurtsogileak:

- a) Udal entitatean dirutan edo balore publikotan egindako gordailua.
- b) Udal entitatearen aldeko abal edo fidantza solidarioa, ofizialki erregistraturiko banku edo bankari batek, aurrezki kutxa konfederatu batek, Postako Aurrezki Kutxak edo kreditu kooperatiba kalifikatu batek emana.
- c) Kaudimen aitortua duten herriko bi zergadunek emandako behin-behineko fidantza solidarioa. Berme hori 601,01 eurotik beheragoko zorrak direnean onartuko da bakarrik.

Halere, oso kasu berezi eta kualifikatuetan, udalerriek, alderdi batek eskaturik, prozeduraren etendura erabaki ahal izango dute beren iritzia arabera, inolako bermerik eman gabe, errekurtsogileak bere eskarian azaldu eta egiaztatzen duenean bermerik eratzea ezinezkoa zaiola edo sinesgarriri frogatzen duenean bere zergen ezarpen eta eraginkortasunari buruzko egintzetan akats material eta aritmetikoak daudela.

¹¹ 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 8. artikuluko Lau apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.



Prozeduraren etetea onartzeak berarekin ekarriko du, beti, etenaldi osoari dagozkion berandutza interesak ordaintzeko betebeharra. Era berean, berraztertze errekurtoa edo, kasua denean, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztean bakarrik izango ditu ondorioak. Errekurtso biak elkarren segidan jartzen direnean, etendura bide ekonomiko-administratiboan berritu beharko da.

15. artikulua.

Honako Foru Arau honetan aupaturiko tributuak ezarri, araupetu eta mantentzeko beharrezkoak izan daitezten Ordenantza Fiskalek, gutxienez, honakook barruhartu beharko dituzte:

a) Egintza ezargarri, sujetu pasibo, erantzule, salbuespen, murriztapen eta hobari, oinarri zergagarri eta likidagarri, karga mota edo tributu kuota, epealdi ezargarri eta sortzapenaren zehaztapena.

b) Aitorpen eta sarrera erregimenak.

c) Beraren ezarpenaren onespén eta hasiera datak.

Ordenantza Fiskal hauen onespenerako akordioak, dagozkien tributuak ezartzeko akordioekin batera hartu beharko dira.

Aipatu Ordenantzen aldazpen akordioek, ukituriko arauen idazketa berria, beraien onspén datak eta beraien ezarpen hasiera jaso beharko dituzte.

16. artikulua.

1. Udal Korporazioek, tributuen ezarpen, ezabatze eta antolamendurako eta tributu kuota ezberdinen zehaztapenerako beharrezko diren elementuen finkapenerako hartutako akordioak eta baita ere, dagozkien Ordenantza Fiskalen onspén eta aldarapenak Entitatearen iragarki taulan jarriko dira agerian hogeitamar egunetan zehar, berauetan interesgunek espedientea aztertu ahal izango dutelarik eta egokitzen jo ditzaten erreklamazioak aurkeztu.

2. Udalerriek, dena den, azalpen iragarkiak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuko dituzte. Era berean, 10.000 pertsona baino gehiagoko zuzenbideko biztanleria duten Entitateek Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapenik handienetakoa den egunkari batetan argitaratu beharko dituzte.

3. Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioek behar diren behin betiko erabakiak hartuko dituzte, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebartziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

4. Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren



aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratzen hori burutua izan ez dadin artean.

5. Hogei mila pertsona baino gehiagoko zuzenbidezko biztanleria duten udalerrietan, bertako tributuen Ordenantza Fiskal erregulatzailen testu osoa argitaratuko da, ekitaldi ekonomiko bakoitzaren lehen lauhilabetekoaren barruan.

Dena den, Udalek, argitaratutako Ordenantza Fiskalen kopiak luzatu beharko dizkiete eskatzen dituztenei.

17. artikulua.

Aurreko artikuluko 1. atalean xedatutakoaren ondorioetarako, interesduntzat honakook joko dira:

- a) Zuzeneko interesa dutenak edo eta harako akordioek ukituak izan daitezzenak.
- b) Lanbide Kolegio, Ganbara Ofizial, Elkarte eta lanbide, ekonomia eta auzoko interesen alde egiteko legalki eraikitako gainerako Entitateak, beraienak direnen defentsan ihardun dezatenean.

18. artikulua.

1. Foru Arau honen 16.3 artikulua aipatzen dituen Udalerrietako Ordenantza Fiskalak, beraietan aurrikusitako epe mugatu zein mugagabeen zehar izango dira indarrean, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik jarri ahal izango den errekurtsio kontentzioso-administratiboa izango delarik erabili ahalko den errekurtsio bakarra, aipatu jurisdikzioa erregulatzaren duten arauetan ezarri modu eta epeetan.

Nolanahi ere eta aurreko 14.1 artikuluan ezarritakoaz at interesdunak, aukeran eta bide kontentzioso-administratibora jo baino lehen, erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango du Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurrean, dagokion Ordenantza Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo hilabeteko epean.

2.¹² Epaileek edo administrazioak hartutako ebazpen irmo baten ondorioz udal erabakiak edo ordenantza fiskalen testua deuseztatuta edo aldatuta geratzen badira, udalbatzarrak foru arau honetako 16.4 artikuluan ezarritakoaren arabera argitaratu beharko du deuseztapena nahiz ebazpenaren arabera aldatutako aginduen testu berria. Geroago deuseztatu edo aldatzen den ordenantzaren babesean ematen diren egintza irmoak edo onartuak bere horretan mantenduko dira non eta sententziak espreski debekatzen ez duen

¹² 2. apartatu hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 8. artikuluko Bost apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.



18. bis artikulua.¹³

Testamentu-ahalardearen bidez gauzatzen diren herentzietan, administratzailea erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalardea erabili gabe duen herentziaren zerga zorrei dagokienez.

2. Sekzioa: Zergak

19. artikulua.

1. Gipuzkoako Udalek, erregulatzen dituzten arau eta xedapenen arabera, jarraiko zergok eskatu beharko dituzte:

- a) Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga.
- b) Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga.
- c) Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga.

Udalerriek, Foru Arau ezberdinek aitortutako hauen alorreko eskumenen erabilera egitea erabakitzen baldin badute, beraien erabilera erabaki beharko dute eta Ordenantza Fiskal egokia onetsi.

2. Era berean, Gipuzkoako Udalek, honako Foru Arau honetan ezarritako printzipioen muga eta alde aurretik dagozkien Ordenantza Fiskalen ezarpen eta onespena erabaki ondoren, honakook ezarri eta eskatu ahal izango dituzte:

- a) Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga.
- b) Hirilurren balioen gehikuntzaren gaineko Zerga.

3. Sekzioa: Tasak

1. Azpisekzioa: Xedapen Orokorra

20. artikulua.¹⁴

¹³ Artikulu hau 2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUaren 5. artikulua gehitu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legea egokitzen du. Foru arau GAOn argitaratu den egunean jarri da indarrean (2016-11-18ko GAO) eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera ditu ondorioak.

. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

¹⁴ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



1. Ordenantzak ezarri eta onartzeko erabakia hartu ondoren, Gipuzkoako udalerriek tasak finkatu eta exigitu ahal izango dituzte, foru arau honetan jasotakoari jarraiki, udalaren herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziagarentik, bai eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten eta udalaren eskumenekoak diren zerbitzu publikoak emateagatik edo jarduera administratiboak egiteagatik ere.

Nolanahi ere, tasatzat hartuko dira ondoko hauengatik Gipuzkoako udalerriek finkatzen dituzten ondarezko prestazioak:

A) ¹⁵ Udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo probetxamendu berezia, eta, halaber, erabilera publikoari atxikitako beste ondasun batzuen.

B) Subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten udalaren eskumenekoak diren eta zuzenbide publikoko erregimenean dauden zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea; eta beti ere ondorengo zirkunstantzietako edozein gertatzen denean:

a) Zerbitzu edo jarduerak administratuek borondatez eskatzekoak edo hartzekoak ez izatea. Ondorio horietarako, ondoko kasuetan ez da borondatezkotzat joko administratuek eskatzea edo hartzea:

Lege edo erregelameduzko xedapenetan ezarria denean.

Administrazioari eskatutako ondasun, zerbitzu edo jarduerak ezinbestekoak direnean eskatzailearen bizitza pribatu edo sozialean.

b) Sektore pribatuak ez ematea edo egitea, indarrean dagoen araudiari jarraiki sektore publikoaren alde erreserbatuta egon edo ez.

2. Aurreko 1 apartatuan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako udalerriek tasak ezarri ahal izango dituzte udalaren herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo probetxamendu bereziaren edozein kasutan eta, bereziki, kasu hauetan:

a) Hondarra eta eraikuntzarako bestelako materialak ateratzea udalaren herri jabariko terrenoetan.

b) Elurtzuloak edo euri urak biltzeko zisterna edo uraskak egitea udalaren herri erabilerako terrenoetan.

c) Bainuetxeak eta ur publikoen erabilera arrunta ez diren bestelako ur probetxamenduak.

¹⁵ A) letra hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 8. artikuluko Sei apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.



- d) Teilatu-hodien isurlekuak eta hustubideak eta antzeko beste instalazio batzuk udalaren herri erabilerako terrenoetan.
- e) Udalaren herri erabilerako terreneen lurrazpia hartzea.
- f) Zangak, mea zuloak eta sundak irekitzea, bai eta errepideak, bideak eta gainerako herribideak ere, udalaren herri erabilerako terrenoetan, hodiak, eroanbideak eta bestelako instalazioak jarri eta konpontzeko. Halaber, kalean zoladura edo espaloia iraultzea.
- g) Udalaren herri erabilerako terreneak hartzea merkantziak, eraikuntza materialak, obra hondakinak, hesiak, puntelak, asnilak, aldamiok eta antzeko beste instalazio batzuk jarriaz.
- h) Aparkamendu murrizturako ibilgailuen sarrerak kaleko espaloietan eta erreserbetan zehar, ibilgailuen geralekuak, edozein motatako merkantzien karga eta deskarga.
- i) Pisuen errejak, luzernarioak, arnasbideak, sarrerako ateak, karga ahoak edo antzeko elementuak jartzea edozein motatako udal herribideen lurzorua edo lurrazpia hartuz, soto edo erdisotoei argia, aireztapena, personen sarrera edo artikuluen sarrera emateko.
- j) Edozein motatako udal herribideen hegalkina hartzea elementu hauekin: eraikuntzako elementu itxiak, terrazak, begiratokiak, balkoiak, markesinak, toloak, parabientoak eta antzeko beste instalazio batzuk, kalearen gainetik edo fatxadaren lerrotik ateratzen direnak.
- k) Linea elektrikoak, hodiak eta galeriak argindar, ur, gas edo bestelako isurkinak garraiatzeko, bai eta lineen zutoinak, kableak, palomilak, amarratze, banaketa eta erregistro kaxak, transformadoreak, errailak, baskulak, salmenta automatikorako aparailuak edota kaleetan edo udalaren herri jabariko bestelako terrenoetan ezartzen diren antzeko elementuak.
- l) Udalaren herri erabilerako terreneak hartzea mahai, aulki, tribuna, oholtza eta antzeko beste elementu batzuk erabiliz, irabazi asmoa dagoenean.
- m) Kioskoak jartzea kalean.
- n) Postuak, barrakaka, saltokiak, ikuskizun guneak, feriak edo jolas lekuak jartzea udalaren herri erabilerako terrenoetan, bai eta kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinemako filmaketa ere.
- ñ) Portadak, erakuslehoiak eta beira-arasak.
- o) Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari lotu gabe dauden ibilgailuen errodojeara eta arrastea.
- p) Azienda pasatzea kaleetan edo udalaren herri jabariko terrenoetan.



q) Lurren, eraikuntza edo hesien behin-behineko edo behin betiko eustormak, udal kaleetan.

r) Erregaien eta, oro har, edozein artikuluko edo merkantziaren deposituak eta banaketa aparatuak, udalaren herri erabilerako terrenoetan.

s)¹⁶ Iragarkiak udal herri jabariko terrenoetan jartzea.

t) Udal errepide, bide eta gainerako herribideetan atarjeak eta areken gainean eta lubetetan pasabideak egitea, edozein motatako ibilgailuak eta azienda pasatzeko.

u) Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerrietako kaleetan aparkatzea horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin.

3. Aurreko 1 apartatuan jasotakoaren arabera, Gipuzkoako udalerriek tasak ezarri ahal izango dituzte udal eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduera administratiboak egiten dituzten edozein kasutan eta, bereziki, kasu hauetan:

a) Udal administrazio edo agintariak luzatu edo bere gain hartzen dituzten agiriak, alderdi batek eskatuta.

b) Udalerriaren armariaren plakak, patenteak eta antzeko bereizgarriak erabiltzeko baimena.

c) Autotaxien eta alokairuko gainerako ibilgailuen lizentziak edo baimenak ematea.

d) Landa munduaren zaintza.

e) Jendaurreko ahozko abisuak.

f) Hala eskatzen duten establezimenduen zaintza berezia.

g) Udal eskumeneko zerbitzuak, jendaurreko ikuskizunak, garraio handiak, ibilgailu ilaren pasabideak eta zerbitzu berezi horiek ematea exigitzen duten bestelako jarduerengatik bereziki eman beharrekoak

h)¹⁷ Lurzoruari eta hiri antolamenduari buruzko legeriak exijitutako hirigintza-lizentziak ematea edo, lizentziaren ordean erantzukizuneko aitortzea edo

¹⁶ s) letra hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 1. artikuluko hiru zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).

¹⁷ Letra hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUaren 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO)



aurretiatzko komunikazioa aurkeztu behar den kasuetan, kontrol jarduera administratiboak egitea.

i)¹⁸ Establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea edo, lizentziaren ordean erantzukizunezko aitortpena edo aurretiatzko komunikazioa aurkeztu behar den kasuetan, kontrol jarduera administratiboak egitea.

j) Ondoko hauen ikuskerak: ibilgailuak, lurrin galdarak, motoreak, transformagailuak, igogailuak, kargagailuak eta industria eta merkataritza establezimenduen antzeko beste aparailu eta instalazioak.

k) Suhiltzaile zerbitzuak, aurrien prebentziokoak, eraikuntza eta eraispeneak, salbamendukoak eta, oro har, pertsona eta ondasunen babes zerbitzuak. Zerbitzuaren mantenimendua nahiz zerbitzu horiei lotutako makineria eta ekipoen (eskalak, upelak, motoponpak, txalupak...) erabileraren lagapena ere sartuko dira.

l) Osasun ikuskatzaitzako zerbitzuak, bai eta analisi kimiko eta bakteriologikokoak eta antzeko izaera duen beste edozein zerbitzu ere, eta oro har laborategi zerbitzuak edo udalerrien osasun eta higieneko beste edozein establezimenduren zerbitzua.

m) Osasun prebentiboko zerbitzuak, desinfekziokoak, intsektuak eta arratoiak hiltzeko zerbitzuak eta, halaber, kutsagarriak diren edo herri osasunerako germen kaltegarriak hedatzen dituzten edozein motatako materia eta produktuak suntsitzeko zerbitzuak, etxez etxe edo enkarguz emanak.

n) Asistentziak eta egonaldiak ospital, klinika edo eritetxe mediko-kirurgiko, psikiatriko eta berezietan, ambulategietan, gaixoak indarberritzeko eta errehabilitatzeko zentroetan; ambulanziaz sanitarioak eta antzeko beste zerbitzuak; eta udalerrien gainerako ongintza eta asistentzia establezimenduak, bai eta edozein izaeratako entitateek gastuak ordaindu behar dituztenean ere.

ñ) Asistentziak eta egonaldiak zaharren etxe eta egoitzetan, haur hezilekuak, aterpetxeak eta antzeko izaera duten bestelako establezimenduetan.

o) Bainuetxeak, dutxalekuak, igerilekuak, kirol instalazioak eta antzeko beste zerbitzuak.

p) Udal hilerriak, gorpuak eramateko zerbitzuak eta bestelako udal hiletak zerbitzuak.

¹⁸ Letra hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUAREN 5. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO).



- q) Hodiak, hari eroaleak eta kableak jartzea udalerrien titularitateko posteetan de zerbitzuko galerietan.
- r) Estolderia zerbitzuak, bai eta ur zikinen tratamendua eta arazketa ere, estolda partikularren zaintza barne.
- s) Hiri hondakin solidoen bilketa, horien tratamendua eta deuseztapena, putzu beltzen hustuketa, eta kale partikularren garbiketa.
- t) Ur, gas eta argindarraren banaketa, eta jendearentzako beste hornidurak, lineak lotzeko eskubideak eta kontagailu eta antzeko instalazioen jartzea eta erabilera barne, zerbitzu edo hornidura horiek udalerriek emanak direnean.
- u) Animaliak hiltzeko zerbitzua, lonjak eta azokak, bai eta haragien garraioa ere derrigorrez zerbitzu hori erabiltzen bada; eta ikuskatzaitza zerbitzuak hornidura alorrean, pisatu eta neurtzeko bitartekoen erabilera barne.
- v) Irakaskuntza bereziak udalerrien ikastetxeetan.
- w) Bisitak museo, erakustoki, liburutegi, monumentu historiko edo artistikoetara, nahiz parke zoologiko edo antzeko beste zentro edo tokietara.
- x) Udal zutabe, karteltoki eta antzeko beste udal instalazioen erabilera iragarkiak jendaurreratzeko.
- y) Herribideak hondarreztatzea partikularren eskatuta.
- z) Hiri trafikoa arautu eta kontrolatzeko jarduera bereziak egitea, ibilgailuen zirkulazioa errazteko eta Udaltzaingoak trafikoa seinalizatu eta antolatzeke egin ohi dituenak izan gabe.

4.¹⁹ Artikulu honetako 3. apartatuan aipatutako zerbitzu publikoen prestazioagatik era hertsagarrian ezarri eta jasotzen diren kontraprestazio ekonomikoak izaera publiko ez-tributarioko ondare prestaziotzat hartuko dira Konstituzioaren 31.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, prestazio horren kudeaketa zuzenekoia izan - pertsonifikazio pribatu bidez- zein zeharkakoa izan.

Zehazki, halakotzat hartuko dira emakida erregimenean egiten diren obren ustiapenagatik edo zerbitzuen prestazioagatik exigigarriak direnak, ekonomia mistoko sozietateen, entitate publiko enpresarialen, kapital publiko soileko sozietateen, eta zuzenbide pribatuko bestelako formulen bitartez egiten direnean.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 103. artikuluan ezarritakoa gorabehera, apartatu honetan aipatzen diren

¹⁹ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauaren 8. artikulua aldatu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).



kontraprestazio ekonomikoak ordenantza bidez arautuko dira. Ordenantza hori onartzeko prozeduran zehar, toki entitateek aginduzko txostena eskatu beharko diete ordenamendu juridikoaren arabera haien gainean esku-hartzeko ahalmena duten administrazio publikoei.

5.²⁰ Gipuzkoako udalek ezin izango dute tasarik exigitu honako zerbitzuak direnean:

- a) Herriko iturrietako uren hornidura
- b) Herribideetako argiteria.
- c) Herri zaingo orokorra.
- d) Herri babesa.
- e) Herribideen garbiketa.
- f) Irakaskuntza derrigorrezko hezkuntzaren mailetan.

6.²¹ Estatuak, autonomia elkarteak eta udal entitateak ez daude behartuta tasak ordaintzera herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziarengatik, zuzenean ustiatzen dituzten komunikabideetako zerbitzu publikoen probetxamenduarengatik eta zuzen-zuzenean herritarren segurtasun edo defentsari interesgarriak zaizkion guztiengatik.

2. Azpisekzioa: *Egitate zergagarria*

21. artikulua.²²

1. Hauexek izango dira tasen zergagaia, aurreko 20. artikuluan xedatutakoaren arabera: udalaren herri jabariaren erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia; eta subjektu pasiboari bereziki egokitu, eragin edo onura ekartzen dioten udal eskumeneko zerbitzuak ematea edo jarduerak egitea.

²⁰ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauaren 8. artikuluko 4 zenbakiduna izatetik 5 izatera bihurtu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

²¹ Apartatu hau otsailaren 11ko 3/2019 Foru Arauaren 8. artikuluko 5 zenbakiduna izatetik 6 izatera bihurtu du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialena argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2019/02/20ko GAO).

²² Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikuluko aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



2. Jarduera administratiboak edo zerbitzuak subjektu pasiboari eragin edo egokitzen zaiola ulertuko da berarengatik zuzenean edo zeharka sortua izan denean, beraren jarduketa edo omisioak direla-eta Gipuzkoako udalerrak ofizioz jarduerak egitera edota zerbitzuak ematera behartuta egoteagatik segurtasun, osasun, biztanleen hornidura zein hirigintza arrazoiak direla-eta edo beste edozein zio dela bide.

22. artikulua.

Zerbitzuen prestazioaren ziozko tasek ez dute ezarketa edo gehitzearen zioz eginiko kontribuzio berezien ordainerazpena baztertzen.

3. Azpisekzioa: *Sujetu pasiboak*

23. artikulua.²³

1. Taseen subjektu pasiboak dira, zergadun diren aldetik, pertsona fisiko eta juridikoak, bai eta Zergen Foru Arau Orokorrek 35. artikuluan 3 apartatuan aipatutako entitateak, baldin eta:

a) Udalerraren herri jabaria bereziki gozatu, erabili edo aprobetxatzen badute beren onurarako, foru arau honek 20.2 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

b) Udalerriek eman edo egiten dituzten udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte edo haiek onura ekarri edo eragiten badiete, foru arau honek 20.3 artikuluan jasotako kasuetako baten arabera.

2. Zergadunaren ordezkioak hauexek izango dira:

a) Etxebizitza edo lokalen egoiliar edo erabiltzaileei onura dakarkien edo eragiten dieten zerbitzu edo jarduerengatik finkatutako tasetan: Ondasun higiezin horien jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

b) Lurzoruari eta hiri antolaketari buruzko araudian jasotako hirigintza lizentziak emateagatik finkatutako tasetan: Obren eraikitaileak edo kontratistak.

c) Suhiltzaile zerbitzuak, aurrien prebentziokoak, eraikuntza eta eraispeneak, salbamendukoak eta, oro har, pertsona eta ondasunen babes zerbitzuak emateagatik finkatutako tasetan (zerbitzuaren mantenimendua barne): Arriskuaren aseguratzaileak diren entitate edo sozietateak.

²³ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako hamargarren xedapenaren 6 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



d) Erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia dela-eta ibilgailuak edo gurdiak espaloietan sartu edo haiek egin, mantendu, aldatu edo kentzeagatik finkatutako tasetan: Ibilgailuen sarrera horiei sarbidea ematen dieten finka eta lokalen jabeak. Horiek, bidezkoa denean, onuradun desberdinei jasanarazi ahal izango dizkiete kuotak.

4. Azpisekzioa: zenbatekoa eta sortzapena

24. artikulua.²⁴

1.²⁵ Udal herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik aurreikusitako tasen zenbatekoa ondoko erregelen arabera finkatuko da:

a) Izaera orokorrez, erabilera edo aprobetxamendu horren erabilgarritasunak merkatuan izango lukeen balioa hartuko da erreferentzia gisa, beti ere eragindako ondasunak herri jabarikoak ez badira. Horretarako, ordenantza fiskalek, erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziaren izaera aintzat harturik, finkaturik utzi ahal izango dute kasu bakoitzean zein irizpide eta parametro erabiliko diren aipaturiko erabilgarritasunaren merkatuko balioa zehazteko.

b) Litzitazio irekiaren prozedurak erabiltzen direnean, tasaren zenbatekoa emakida, baimena edo esleipena bereganatzen duen proposamenaren balio ekonomikoaren arabera zehaztuko da.

c) ²⁶Tasak finkatzen badira hornidura-zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresek udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziak egiteagatik, eta hornidura-zerbitzu horiek interes orokorrekoak badira edo auzotar guztiei edo horien zati handi bati eragiten badiete, haien zenbatekoa aipatutako enpresek udalerrri bakoitzean urtean lortzen duten fakturaziotik eratorritako sarrera gordinen portzentaje bat izaten ahalko da.

Ondorio horietarako, zerbitzu horien enpresa ustiatzaileen artean zerbitzu horiek banatu eta merkaturatzen dituztenak sartuko dira.

²⁴ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeke uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

²⁵ 1 apartatu hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUaren 1. artikulua lau zenbakiak aldatu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).

²⁶ c) letra hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren III Kapituluko 7. artikulua bat zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak.



Telefonia mugikorreko zerbitzuak ez dira tasa kuantifikatzeko erregimen berezi honetan sartuko.

Kuantifikaziorako erregimen berezi hau aplikagarria izango zaie c) letra honetan aipatzen diren enpresei bai hornidurak egiteko erabiltzen diren sareen titularrak direnean, eta bai, horien titularrak ez izanik ere, sareak erabili, horietan sartu edo haiekin interkonektatzeko eskubideen jabe direnean.

Letran honetan xedatutakoaren ondorioetarako, fakturaziotik eratorritako sarrera gordinak hauek direla joko da, alegia, entitate bakoitzari egozgarriak izanik, entitateak udalerrri bakoitzean egindako zerbitzuengatik kontraprestazio gisa lortutakoak.

Ondorio hauetarako, egindako zerbitzuak kargatzen dituzten zeharkako zergak ez dira sarrera gordinen artean sartuko, ezta ere hirugarren batzuen kontura kobratutako partida edo kopuruak tasa kuantifikatzeko erregimen berezi hau aplikagarri duen entitatearen berezko sarrerak ez badira.

Era berean, ez dira fakturaziotik datozen sarrera gordinen artean sartuko hornidura zerbitzuengatik jasotako kopuruak, baldin eta zerbitzu horiek erabiliko badira Ekonomia Ministerioko Energia elektrikoaren Produkzio Instalazioen Erregistro Administratiboaren 1. edo 2. Atalean inskribatuta dauden instalazioetan, erregimen berezi honetan zergapetuko den energia sortzeko behar den lehengai gisa.

Hornidurak egitean inoren sareak erabiltzen dituzten enpresek kopuru hauek kenduko dituzte beren fakturazioaren sarrera gordinetatik, hain zuzen, sare horietara sartzeagatik edo haiekin interkonektatzeagatik beste enpresei ordaindutako kopuruak. Sare horien enpresa titularrek beren fakturazioaren sarrera gordinen artean konputatu beharko dituzte kontzeptu horregatik jasotako kopuruak.

Erregimen berezi hau aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoa ezingo zaie c) letra honetan aipatzen diren hornidura zerbitzuen erabiltzaileei jasanarazi.

c) letra honetan arautzen diren tasak bateragarriak dira udal eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik finkatu daitezkeen bestelako tasekin, baldin eta letra honetan aipatzen diren enpresak haien subjektu pasibo badira foru arau honek 23.1.b) artikuluan ezarritakoren arabera. Alabaina, udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran eraturako erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezitik erator litezkeen bestelako tasen ordainarazpena ez da tasa hauen ordainketarekin bateragarria izango.

2. Oro har, eta ondorengo parrafoan jasotakoaren arabera, zerbitzua emateagatik edo jarduera egiteagatik ordaindu beharreko tasen zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan, batera hartuta, zerbitzu edo jarduerak benetan duen edo izan dezakeen kostua edo, halakoaren ezean, zerbitzuaren prestazioaren balioa baino.



Zenbateko hori zehazteko kontuan hartuko dira zuzeneko eta zeharkako kostuak, kostu finantzario aplikagarriak, ibilgetuaren amortizazioa eta, hala behar denean, tasa exigitzen zaion zerbitzu edo jardueraren mantenimendua eta bidezko garapena bermatzeko behar diren kostuak barne, eta hori guztia haiek ordaintzeko erabiltzen den aurrekontua kontuan hartu gabe. Zerbitzu edo jardueraren mantenimendua eta bidezko garapena organo eskudunak onartutako aurrekontu eta proiektuaren arabera kalkulatu dira.

3. Zerga kuota honelakoa izango da, ordenantza fiskalean xedatutakoaren arabera:

- a) Tarifa bat jarriz ateratzen den kopurua.
- b) Horretarako jarritako kopuru finkoa.
- c) Bi prozedurak batera erabiliz ateratzen den kopurua.

4. Tasek zenbatekoa zehazteko, horiek ordaintzera behartuta dauden subjektuen ahalmen ekonomikoari buruzko irizpide generikoak erabili ahal izango dira.

5. Erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziak berarekin dakarrenean udalaren jabari publikoaren suntsidura edo narriadura, tasaren subjektu pasiboa behartuta egongo da berreraikuntza edo konponketa gastuen kostu osoa itzultzera, tasa ordaintzea eragotzi gabe.

Kalteak konponezinak badira, kalteordaina subjektu pasiboak suntsitutako ondasunen balioaren edo ondasun narriadurei eragindako kaltearen zenbatekoaren adinako kopurua izango da.

Udalerriek ezingo dituzte barkatu, ez osorik ez zati batean, apartatu honetan aipatutako kalteordainak eta diru itzulketak.

25. artikulua. ²⁷

Herri jabariaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik tasak ezartzeko erabakiak edo zerbitzu berriak osorik zein partez finantzatzekoak, txosten tekniko-ekonomikoak behin ikusita hartu behar dira; txosten horietan, hurrenez hurren, herri jabariaren merkatuko balioa edo zerbitzu horiek estaltzeko aurreikusten den era adierazi behar dira.

Aurreko paragrafoan aipatu den txosten tekniko-ekonomikoa aurkeztea ez da beharrezkoa izango erabakiak izaera orokorreko birbaloratze edo

²⁷ Artikulu hau abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUaren 5. artikuluko bit apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunean sartzen da indarrean (2012/12/28ko GAO).



eguneratzeengatik hartzen direnean edo tasen zenbatekoa murrizten denean, kasuan kasuko zerbitzuaren kostua nabarmen jaisten ez bada behintzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, murrizpena nabarmena dela joko da aurreikusten denean zerbitzuaren kostua 100eko 15 baino gehiago jaitsiko dela tasak ezarri edo aldatzeko erabakiari erantsitako txosten tekniko-ekonomikoan aurreikusitakoaren aldean. Txosten tekniko-ekonomikorik ez aurkeztea arrazoitzeko, gastua kudeatzen duen organoak berariaz utzi behar du jasota aldaketa onartzeko espedientean kostua ez dela modu nabarmenean murrizten.

26. artikulua.²⁸

1. Tasak kasu hauetan sortu ahal izango dira beren zergagaiaren izaeraren arabera eta ordenantza fiskalean jasotakoari jarraiki:

a) Erabilera pribatiboa edo probetxamendu berezia hasten denean, edota zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean, nahiz eta bi kasuotan zenbatekoa osorik edo zati batean aurrez gordailatzea exigitu daitekeen.

b) Jarduketa edo espedienteari hasiera ematen dion eskaera aurkezten denean. Hura egin edo tramitatu aurretik behar den kopurua ordainduko da.

2. Tasaren izaera materialak aldizkako sortzapena exigitzen duenean, eta ordenantza fiskalak hala jasotzen duenean, sortzapena urte bakoitzeko urtarrilaren 1ean gertatuko da eta zergaldiak urte naturala hartuko du, salbu erabilera pribatiboa, probetxamendu berezia edo zerbitzu edo jardueraren erabilpena hasi edo amaitzen bada. Azken kasu horretan zergaldia zirkunstantzia horretara egokituko da kuota hainbanatuz, ordenantza fiskalean jasotakoaren arabera.

3. Subjektu pasiboari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzu publikoa, jarduera administratiboa edo herri jabaria erabili edo aprobetxatzeko eskubidea eman edo egiten ez denean, zenbatekoa itzuli beharko zaio.

27. artikulua.²⁹

1. Udalerriek autolikidazio erregimenean eskatu ahal izango dituzte tasak.

²⁸ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

²⁹ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



2. Udalerriek lankidetzaz hitzarmenak sinatu ahal izango dituzte tasen subjektu pasiboaren ordezkariak diren entitate, erakunde eta organizazioekin, tasetatik eratorritako obligazio formal eta materialen betetze lana nahiz likidazio edo bilketa prozedurak errazteko.

4. *Sekzioa: kontribuzio bereziak*

1. *Azpisekzioa: xedapen orokorrak*

28. artikulua.

Gipuzkoako Udalek, alde aurretik dagokien Ordenantzaren ezarpen eta onspena akordatu ondoren, sujetu pasiboaren onura edo beraren ondasunen balioaren gehikuntza sor ditzaten obrak burutzeko edo udal zerbitzuak ezartzeko zein ugaritzeko kontribuzio bereziak ezarri eta eskatu ahal izango dituzte.

2. *Azpisekzioa: egitate zergagarria*

29. artikulua.

Kontribuzio berezien egitate ezargarria, obra publikoak egitearen edo zerbitzu publikoak ezartzearen zein ugaritzearen ondorioz sujetu pasiboak onura edo ondasunen balioaren gehikuntza lortzean datza.

30. artikulua.

1. Udal obra eta zerbitzuen izaera izango dute:

a) Udalek, atxikirik dituzten helburuak betetzeko beren eskumen eremuaren barruan egiten dituztenak, beren ondare ondasunen jabe gisa egiten dituzten harakoak izan ezik.

b) Bestelako Entitate Publikoek atxikiak edo eta eskuordetuak izan zaizkielako eta lehenaren arabera jabetza eskuratu izan dutelako Entitate horiek egiten dituztenak.

c) Udalerrien ekarpen ekonomikoak dituztela, bestelako Entitate Publikoek edo beraien emakidadunek egiten dituztenak.

2. Ez dute udal jiteko obren edo zerbitzuen izaera galduko aurreko ataleko a) letran barnesartuak, sozietatearen kapitala oso-osoan Udal Entitate batena duten Erakunde Autonomo edo Merkatal Sozietateek, aipatu Erakundeko ekarpenak dituzten emakidadunek edo Foru Arau honetako 37. artikulua aipatzen dituen zergadunen administrazio elkarteek eginak badira ere.

3. Kontribuzio berezien bidez bildutako zenbatekoak, bakarrik eskakizun-gai izan den obra edo zerbitzuaren gastuak ordaintzeko erabili ahal izango dira.



3. Azpisekzioa: *sujetu pasiboa*

31. artikulua.³⁰

1. Kontribuzio berezien subjektu pasiboak dira pertsona fisiko zein juridikoak eta Zergen Foru Arau Orokorreko 35. artikulua 3 apartatuan aipatzen dituen entitateak, baldin eta obrak egiteak edo kontribuzioa ordaindu beharra sortzen duten zerbitzuak ezartzeak edo zabaltzeak onura ekartzen badie.

2. Honakoak joko dira bereziki onura hartu duten pertsonatzat:

a) Obrak egitea edo ondasun higiezinari lotutako zerbitzuak ezartzea edo zabaltzea dela-eta finkatutako kontribuzio berezietan, haien jabeak.

b) Enpresa ustiapenen ondorioz obrak egiteagatik edo zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik finkatutako kontribuzio berezietan, haien titular diren pertsonak edo entitateak.

c) Suhiltzaile zerbitzuak ezarri edo zabaltzeagatik finkatutako kontribuzio berezietan, ukituriko ondasunen jabeek gain, udalerrri bakoitzean alor horretan jarduten diren aseguru etxeak.

d) Lurrazpiko galeriak egiteagatik finkatutako kontribuzio berezietan, haiek erabili behar dituzten enpresa hornitzaileak.

4. Azpisekzioa: *oinarri ezargarria*

32. artikulua.

1. Kontribuzio berezien oinarri ezargarria, gehienez, Udalak obren burutzapenaren zioz edo eta zerbitzuen ezarketa edo gehitzearen zioz jasan dezan kostuaren 100eko 90ekoa izango da.

2. Aipaturiko kostuak jarraiko kontzeptuok barnehartuko ditu:

a) Peritu lan, proiektu idazketa eta obra, plan zein egitarau teknikoaren zuzendaritzaren benetako kostua.

b) Egiteko obren zein zerbitzuen ezarketa edo gehitze lanen zenbatekoa.

c) Obrek edo zerbitzuek iraunkortasunez okupatu beharko dituzten lursailen balioa, salbu erabilera publikoko ondasunak, Udalari dohain edo nahitaez utzitako lursailak edo indarrean diharduen legeriak ezarritako terminoetan utzitako higiezinak.

³⁰ Artikulu hau martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorren amaierako hamargarren xedapenaren 7 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).



d) Eraikuntzen eraisketa, landaketa, obra edo instalazioen desegintzaren zioz eratorritako kalteordainak eta, baita ere, deseginak edo okupatuak izan behar duten ondasunen errentariengandik etorriak.

e) Obra edo zerbitzuetan inbertitutako kapitalaren interesa, Udalek, kontribuzio berezien bidez estali gabeko zatia edo, haien zatikapen orokorraren kasuan, hauen bidez estalia finantzatzeko, kreditura jo behar dutenean.

3. Aurrekontuan jarritako obren eta zerbitzuen guztizko kostuak aurrikuspen hutsaren izaera edukiko du. Benetako kostua aurrikusitakoa baino handiagoa edo txikiagoa balitz, lezkiokoen kuoten kalkuluaren ondorioetarako hura hartuko litzateke.

4. Foru Arau honetako 30.1.c) artikulua aipaturiko obra edo zertitzuak edo eta artikuluko bereko 2. atalean aipaturiko Udalaren ekarpenak dituzten emakidadunek eginikoak diren kauan, kontribuzio berezien oinarri ezargarria ekarpen hauen zenbatekoaren arabera zehaztuko da, obra edo zerbitzu beraren zioz beste Administrazio Publiko batzuk jarri ahal dezatenaren kaltetan izan gabe. Edonola ere, artikuluko hotako 1. atalean aipatzen den 100eko 90eko muga errespetatuko da.

5. Oinarri ezargarria zehazteko orduan, Entitateak jasandako kostutzat, osozko kostuaren zifrari Udalak dirulaguntza edo sorospen gisa jasotakoa kenduz ateratzen den-zenbatekoa hartuko da.

6. Aipaturiko dirulaguntza edo sorospena kontribuzio bereziaren sujetu pasibo den batek emana izango balitz, beraren zenbatekoa lehen eta behin halako pertsona edo Entitatearen kuota konpentsatzeko erabiliko litzateke, Dirulaguntza edo sorospenaren balioak aipaturiko kuota gaindituko balu, gaindikinak, beste hainbestetan, gainerako sujetu pasiboen kuotak gutxituko ditu.

5. Azpisekzioa: kuota eta sortzapena

33. artikulua.

1. Kontribuzio berezien oinarri ezargarria sujetu pasiboen artean banatuko da, obra eta zerbitzuen mota eta izaera kontutan hartuko direla, hurrengo arauoi jarraiki:

a) Orokorrean, baterako zein banakako banaketa modulu gisa, ondasun higiezinaren aurrekaldeko metro linealak, beraien gainazala, beraien bolumen eraikigarria eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako katastroko balioa ezarriko dira.

b) Su itzaltze zerbitzuaren ezarketa eta hobekuntzaren kasuan, ezarpena egiten den Udalerrian kokaturiko ondasunen arriskuari erantzuten dioten Entitate edo Sozietateen artean banatu ahal izango dira, aurreko urtean bildutako primen zenbatekoaren proportzioan. Sujeto pasibo bakoitzari eska dakiokiena berak bildutako primen zenbatekoaren 100eko 5a baino handiagoa izango balitz, soberakina hurrengo ekitaldietara eramango litzateke amortizazio osoa egin arte.



c) Honako Foru Arau honetako 31. artikuluko 2.d) atalak aipatzen dituen obren kasuan, kontribuzio bereziaren zenbateko osoa, erabiliko duten Konpainia edo Enpresen artean banatuko da, bakoitzari, erreserbatutako tartearen arabera edo eta beraien osozko zatiketaren proportzioan, berehalaxe erabiltzen ez badituzte ere.

2. Arautegi ezargarriak edo Nazioarteko Hitzarmenek onura fiskalak ematen dituzten kasuetan, onuradunei ezartzekoak izan daitezkeen kuotak ez dira gainerako zergadunen artean banatuko.

3. Ordaindu beharreko kuota zehaztu ondoren, Korporazioak, sujetu pasiboaren eskariz, haren zatikapena edo gerorapena eman ahal izango du, gehienez bost urtetako eperako.

34. artikulua.

1. Kontribuzio bereziak, obrak burutuak izan daitezen edo zerbitzuak eman izan daitezen unean sortzen dira. Obrak zatikagarriak izango balira, sortzapena, sujetu pasibo bakoitzarentzat, obraren tartearne edo zati bakoitzari dagozkionak eginak izan ondoren sortuko litateke.

2. Aurreko atalean xedatutakoaren kaltetan ez delarik, ezarpen eta antolamendu erabaki konkretua onetsia izan ondoren, Udalak aurretik eskatu ahal izango du kontribuzio berezien ordainketa, hurrengo urterako aurrikusitako kostuaren zenbatekoaren arabera. Ezin izango da urteko berriaren aurrerakinik eskatu, lehen eskatu izan zen aurrerakinari dagozkion obrak eginak izan ez badira.

3. Kontribuzio berezien sortzapen unea hartuko da kontutan, Foru Arau honen 31. artikuluan xedatuaren arabera ordaintzera behartutako pertsona zehazteko orduan, antolamendu-erabaki konkretuan sujetu pasibo gisa, onespren datari zegokionean zena agertu eta kuoten ordainketa, honako artikuluko 2. atalean xedatutakoaren arabera, hark egin izan bazen ere. Antolamendu erabaki konkretua sujetu pasibo gisa agertu eta horren berri jaso izan duen pertsonak, harako erabaki eta sortzapenaren sorreraren artean aurkitzen den epealdian, ezarpenaren zio ematen duten ondasun eta ustiapenei buruzko eskubideak izapidatzen dituenean, eginiko eskualdaketa berri, egin ondoko hilabeteko epearen barruan Administrazioari ematera behartuta aurkitzen da eta, egingo ez balu, harako Administrazioak kobrantzarako egintza espediente hartan sujetu pasibo gisa agertuko litzatekeenaren aurka zuzendu ahal izango luke.

4. Obrak osoan edo partzialki burutuak izan ondoren edo eta zerbitzuaren prestazioari hasiera emandakoan, sujetu pasiboak, oinarria eta behin betiko kuota banakatuak seinaltzera joko da, dagozkien likidazioak igorri eta eginak izan diren ordainketa aurreratutako konturako emate gisa konpentsatuz. Behin betiko seinalez tapen hori Entitate ezartzailearen Organo eskudunek egingo dute, izan deneko obra edo zerbitzurako tributuen antolamendu-erabaki konkretuaren arauari lotuko zaielarik.

5. Aurreratutako ordainketak, tributuen sortzapen datan sujetu pasiboaren izaera ez duten pertsonen eginak izan balira, edo eta dagozkien behin betiko



banakako kuota gainditzen dutenak izango balira, udalak ofizioz egingo luke itzulketara egokia.

6. Azpisekzioa: ezarpena eta antolamendua

35. artikulua.

1. Kontribuzio berezien ordainerazpenak, kasu konkretu bakoitzean alde aurretik ezarpen erabakia hartu beharra izango du.
2. Kontribuzio berezien bidez ordaindu beharko den obra baten egiztaketa edo zerbitzuaren ezarketa edo gehitzeari buruzko akordioa ezingo da bete, hauen antolamendu konkretua onetsia izan arte.
3. Antolamendu erabakia nahitaez hartu beharrekoa izango da eta barru, obra eta zerbitzuen aurrikusitako kostuaren zehaztapena, onuradunen artean banatzeko zenbatekoarena eta banaketa erizpidearean izango ditu. Kasua balitz, Kontribuzio Bereziei buruzko Ordenantza Orokorra ezarri ahal izango zaio.
4. Kontribuzio berezien antolamendu erabaki konkretua hartu eta, ordaindu beharreko kuota zehaztu ondoren, hauek banan-banan sujetu pasibo bakoitzari jakinaraziko zaizkio, berau edo duen helbidea ezagunak direnean eta, horren ezean ediktu bidez. Interesdunek birjarpen errekurtsua edo, kasuaren arabera, Foru Arau honetako 14. artikuluko 1. atalean ezarritakoaren arabera erreklamazio ekonomiko-administratiboa, jarri ahal izango dute, berau kontribuzio berezien jatorriari, era bereziz onuratutako pertsonen ordaindu beharreko kostu portzentaiari edo esleitutako kuotei buruz izan daitekeelarik.

36. artikulua.

1. Udal eskumeneko obra edo zerbitzuak, Udal batek beste baten lankidetzaren ekonomikoa duela egiten direnean eta Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera kontribuzio bereziak jartzen diren kasuetan, haien kudeaketa eta bilketa, obren egiztaketa edo zerbitzuen ezarketa edo gehitzea bere gain hartzen duen Entitateak egingo ditu, ezarpen eta antolamendu erabakiei dagokienean Entitate bakoitzak bere eskumen propioa gordetzearen kaltetan izan gabe.
2. Aipatu Entitateetako batek antolamendu erabaki konkretua onetsiko ez balu, indarrak gabe geratuko litzateke ekintzaren batasuna, beraietarik bakoitzak egokitzat joko litzuzkeen erabakiak hartuko litzuzkeelarik.

7. Azpisekzioa: herritarren lankidetzaren

37. artikulua.

1. Obrek ukituriko jabe edo titularrek zergadunen Administrazio Elkartek eratu ahal izango dituzte eta Udalaren obren egiztaketa edo zerbitzuen ezarketa edo gehitzea sustatu, duen finantz egoerak beroni ezinezko egiten direnean, obraren edo zerbitzuaren izaeraren arabera dagokionaz gainera ekartzea dagokion alde ordaintzeko kauptromezua hartuz.



2. Era berean, Udalak sustatutako obren egiztaketa edo zerbitzuen ezarketa edo gehitzeak ukituriko jabe edo titularrak zergadunen Administrazio Elkarte gisa eratu ahal izango dira, kontribuzio bereziei buruzko erabakiaren jendaurreko erakusketako epealdian.

38. artikulua.

Aurreko artikuluan aipaturiko zergadunen Administrazio Elkarteen eraketarako, akordioa ukituriko gehiengo osoz hartu beharko da, beti ere ordaindu beharko diren kuoten hirutik bi, gutxienez ordezkatzan dituztelarik.

IV. kapitulua: Tributu kontzertatu, ez-kontzertatu eta gainerako sarrera publikoetako partaidetza

39. artikulua.

Gipuzkoako Udalerriek, Tributu Kontzertatuen kudeaketaren emaitzak, Tributu Ez-kontzertatuen ezarpenean eta arautegi ezargarriak parte hartzekotzatik ikusiak izan daitezkeen gainerako sarrera publikoetan partehartuko dute, nolahi ere azaroaren 25eko 27/1983 Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriko lehen atalean aurrikusitakoa bermatuz.

40. artikulua.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorrek urteko, Lurralde Historiko honetako Udalek Tributu Kontzertatuetan izango duten partaidetzari dagokion kreditua barnehartuko dute, elkarbanatutako arrisku erizpedearen arabera mugatuko delarik.

Aipatu erizpidea Lurralde Historikoko sarrera kontzertatuei datozen baliabideei izango zaie aplikagarri, konpentsazioak, murriztapenak eta legozkiokoen gainerako gutxitzeak egin ondoren.

2. Gipuzkoako Foru Diputazioak dagozkien zenbatekoak banatuko dizkie Udalei, horretarako ezarriko den foru arautegiaren arabera.

41. artikulua.

Tributu Ez-kontzertatuen ziozko sarreretan Udalek duten partaidetza, Kontzertu Ekonomikoan xedatutakoaren arabera egingo da.

V. kapitulua: Dirulaguntzak

42. artikulua.

1. Beren obra eta zerbitzuetarako Gipuzkoako Udalerriak lor ditzaten edozein motatako dirulaguntzak ezin izango dira erabili, emanak izan zireneko



helburuetarako ez direnetarako, salbu, kasu balitz, erabilera emakidan aurrikusita ez dutenen soberakin itzulgarrietan.

2. Aurreko atalean xedatutakoa betetzea bermatzeko, dirulaguntzak ematen dituzten Entitate publikoek, haiei emandako xedea egiaztatu ahal izango dute. Egiaztapen egintzen ondoren, dirolaguntzak ez direla erabili emanak izan ziren helburuetarako ikusiko balitz, Entitate publiko emaileak haien zenbatekoaren ituzlketa eskatu ahal izango lukete edo eta ukituriko Entitateak eskubidea izan lezaken beste dirulaguntza edo besterenganaketa batzuren bidez konpentsatu, edo zeintzu liratekeelarik sor litezkeen erantzun beharrak.

VI. kapitulua: Prezio publikoak

1. Sekzioa: xedapen orokorra

43. artikulua.³¹

Gipuzkoako udalerriek, udalbatzarraren alde zuzenaren erabakiarekin eta araudi honi jarraiki, prezio publikoak ezarri eta exigitu ahal izango dituzte udalerriaren eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduerak egiteagatik, baldin eta foru arau honek 20.1 artikuluan B) letran jasotako zirkunstantziarik gertatzen ez bada.

44. artikulua.

Ezin izango da prezio publikorik eskatu honako Foru Arau honen 20. artikuluan zerrendatutako zerbitzu eta ihardueren zioz.

2. Sekzioa: ordaintzera behartuak

45. artikulua.³²

Prezio publikoak ordaintzera behartuta daude prezio horien ordainketa dakarten zerbitzu edo jardueren onura hartzen dituztenak.

46. artikulua.³³

³¹ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

³² Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



3. Sekzioa: zenbatekoa eta ordaindu beharra

47. artikulua.³⁴

1. Prezio publikoen zenbatekoa, gutxienez, zerbitzu edo jardueraren kostuaren adinakoa izango da.
2. Bidezko gizarte, ongintza, kultur edo herri onurako arrazoiak daudenean, aurreko apartatuan jasotako mugatik beherako prezio publikoak jarri ahal izango ditu udalerrriak. Hala gertatzen denean, entitatearen aurrekontuetan jaso beharko dira diferentzia estaltzeko behar diren zuzkidurak, halakorik badago behintzat.

48. artikulua.³⁵

Gipuzkoako udalerriek autolikidazio erregimenean exigitu ahal izango dituzte prezio publikoak.

4. Sekzioa: kobraketa

49. artikulua.³⁶

1. Prezio publikoa ordaindu beharra sortzen da zerbitzua ematen edo jarduera egiten hasten denean, udalerriek zenbatekoa osorik edo zati batean aurrez gordailatzea exigitu badezakete ere.
2. Prezio publikoa ordaindu beharra duenari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik zerbitzua edo jarduera eman edo egiten ez denean, zenbatekoa itzuli beharko zaio.

³³ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren xedapen indargabetzailearen b) letrak indargabetu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

³⁴ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

³⁵ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.

³⁶ Artikulu hau irailaren 15eko 73/1998 Foru Dekretuaren 3. artikulua aldatu du. Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeko uztailaren 13ko 25/1998 Legeak jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen du. 1998ko uztailaren 15etik aurrerako ondorioak ditu.



3. Prezio publikoengatik sortutako zorrak premiamenduzko prozedura administratiboaz eskatu ahal izango dira.

5. Sekzioa: finkapena

50. artikulua.³⁷

Udalbatzarrak ezarri edo aldatuko ditu prezio publikoak, Gobernu Batzordeari eskumen horiek delegatzeko ahalmena eragotzi gabe, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 23.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera.

VII. kapitulua: Kreditu eragiketak

51. artikulua.³⁸

1.³⁹ *Foru arau honetan jasotakoari jarraituz eta erakunde eskudunek ezartzen dituzten xedapenen eremuan, udalek, mankomunitateek, beren organismo autonomoek eta gainerako menpeko entitateek honako hauek hitzartu ahal izango dituzte, baldin eta nagusiki merkataritzako diru sarreren bidez finantzatu gabeak diren zerbitzuak eman edo ondasunak sortzen badituzte:*

a) *Epe luzeko kreditu eragiketak, inbertsioak finantzatzeko edo aurreko kreditu eragiketak ordeztu edo bihurtzeko egiten direnak, edozein motatako kreditu publikoa edo pribatua erabilia.*

b) *Edozein finantza entitateekin gehienez urtebeterako egiten diren diruzaintzako eragiketak, beren diruzaintzako beharrian iragankorrei erantzuteko hitzartzen direnak.*

2.⁴⁰ *Era berean, korporazioaren aurretiazko erabaki baten bidez, toki entitateek abalak edo bestelako bermeak eman ahal izango dituzte, betiere honako hauek hitzartzen dituzten kreditu eragiketak bermatzeko badira:*

³⁷ 50. artikulua hau Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauaren 8. artikuluko Zazpi apartatuak aldatu du, 2000ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

³⁸ Artikulu hau azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK aldatu du, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, 4. artikuluko lehen apartatua dela medio. Aldaketa indarrean dago foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunetik (2014/11/20ko GAO).

³⁹ Azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, apartatu honi emandako idazkera Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak balio gabetu du. Ediktua 2017ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

⁴⁰ Azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, apartatu honi emandako idazkera



a) Toki entitateetako organismo autonomoek edo haien menpeko beste entitate batzuek.

b) Pertsona eta entitateek, betiere udalerrien kontura obrak egitera eta zerbitzuak ematera zuzenduta daudenean.

3.⁴¹ Toki korporazioek izenpetzen dituzten kreditu eragiketa guztiak eta, orobat, abalen edo bestelako berme publikoen emakida finantza-zuhurtasunaren printzipioaren mende daude.

Finantza-eragiketek euren arriskua eta kostua minimizatzeko bete behar dituzten baldintzen multzoa da finantza-zuhurtasuna. Baldintza horiek Ogasun eta Finantza Departamentuko foru agindu bidez ezarriko dira.

Finantza-zuhurtasunaren printzipioa beren sektore publiko osoan aplikatzen dela zainduko dute toki korporazioek.

52. artikulua.⁴²

Epe luzeko kreditu eragiketak hitzartzeko eta abalak edo bestelako bermeak emateko, oro har, beharrezkoa izango da organo eskudunen baimena beren eskumenen eremuaren barruan. Horretarako, kontuan hartu beharko dira betetzen diren defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak nahiz gastu araua, eta aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako printzipio eta obligazioak.⁴³

Era berean, erreparatuko zaie eskaera egiten duen toki entitatearen egoera ekonomiko-finantzarioari, eta hitzartzekoa den kredituaren amortizazio epeari eta mota guztietako baldintzei.

Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak balio gabetu du. Ediktua 2017ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

⁴¹ Apartatu hau abenduaren 23ko 8/2015 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenaren Bat apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2016. urterako aurrekontu orokorrak onartzen ditu. Foru Araua 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. (2015-12-30eko GAO).

⁴² Artikulu hau azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK aldatu du, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, 4. artikuluko bi apartatua dela medio. Aldaketa indarrean dago foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunetik (2014/11/20ko GAO).

⁴³ Azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, paragrafo honi emandako idazkera Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak balio gabetu du. Ediktua 2017ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da..



Nolanahi dela ere, eragiketak ez badira egokitzen finantza-zuhertasunaren printzipioaren baldintzetara, organo eskudunen baimena beharko dute.⁴⁴

53. artikulua.

1.⁴⁵ Foru arau honen 51. artikuluan aipatutako entitateek ez dute baimenik beharko aurreko artikuluan jasotako kreditu eragiketak hitzartzeko, kasu hauetan:

a) Proiektaturiko eragiketaren zenbatekoa handiagoa ez denean toki entitateak eragiketa arruntengatik azken aurrekontu ekitaldian likidatutako baliabideen %5 baino.

b) Kredituaren xedea behar bezala onartutako lankidetzak ekonomikoko plan eta programetan jasotako obra eta zerbitzuak finantzatzea denean.

Edonola ere, baimena lortzea beharrezkoa izan ez dadin, ezinbestekoa izango da toki entitateak hitzar tuta eta indarrean dituen eragiketen eta proiektatutako eragiketaren baturatik ateratzen den urteko karga finantzarioa txikiagoa izatea bere eragiketa arruntengatik likidatutako baliabideen %25 baino.

Horretarako, artikulua honetan aurreikusitako ratioak modu bateratu batean kalkulatu dira.

Apartatu honetan araututako eragiketen berri eman beharko zaie organo eskudunei, erregelamenduz ezartzen den moduan.

2. Artikulu honen ondorioetarako, finantz kargatzat joko da, ekitaldi bakoitzean amortizazio urtekoen, interesen zein burutu edo abalaturako kreditu eragiketei dagozkien komisioen ordainketarako destinatutako zenbatekoen batukina, altxortegiko eragiketak salbuetsiz.

3. Dibisetan edo interes mota aldakorretan edo ezaldi luzeetan kontzertatuak direlako finantz kargaren gibelamendua suposatzen duten kreditu eta bestelako finantz eragiketen kasuan, aurreko atalean xedatutakoak ukiturikoek, arau bidez ezar daitezzen erizpideen arabera, dagozkien finantz kargaren urteko egozketa egin beharko zaie.

53 bis artikulua.⁴⁶

⁴⁴ Paragrafo hau abenduaren 23ko 8/2015 Foru Arauaren amaierako bigarren xedapenaren Bi apartatuak gehitu du. Aipatu Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2016. urterako aurrekontu orokorrak onartzen ditu. Foru Araua 2016ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean. (2015-12-30eko GAO).

⁴⁵ Azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, apartatu honi emandako idazkera Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak baliogabetu du. Ediktua 2017ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.



51. artikuluan jasotakoez besteko menpeko entitateek hitzartzen dituzten kreditu eragiketen kasuan, beharrezkoa izango da toki entitateko Udalbatzarrak edo organo baliokideak aurretik onartzea, eta Kontu-hartzaitzako organoak horiei buruzko txostena eman beharko du eta Foru Aldundiari jakinaraziko zaizkio.

53 ter artikulua.⁴⁷

Ogasun eta Finantza Departamentuak kreditu eragiketei buruzko datu base bat izango du, toki entitateek eta beren menpeko erakundeek hitzartutako kreditu eragiketei eta horien finantza kargei buruzko informazioa emango duena. Bankuek, aurrezki kutxek eta gainerako finantza entitateek nahiz herri administrazioek datu basea osatzeko beharrezkoak diren datuak bidaliko dituzte, erregelamenduz ezartzen den moduan.

III. TITULUA: UDALEZGAINDIKO ENTITATEAK

54. artikulua.

Udalezgaindiko Entitateen Hazienda, honako Arau honetan eta berau garatuko duten xedapenetan ezarritako eremua, dagozkien sorketa Entitateetan aurrikusitako baliabideek osotua izango da.

55. artikulua.

1. Mankomunitate eta gainerako elkartezko Udal Entitateek, tasak, kontribuzio bereziak eta prezio publikoak exijitu ahal izango dituzte, beren sortze arau propioetan xedatutakoaren arabera eta honako Arau honetako Gipuzkoako dalentzat ezarritako terminoetan.

2. Era berean, elkartzeko Udal Entitateek, osotzen dituzten eta beraien atal diren Enteen ohizko ekarpenez gainera, jarraiko baliabideok erabili ahal izango dituzte:

- a) Beren ondaretik etorritako sarrerak eta Zuzenbide pribatuko gainerakoak.
- b) Dirulaguntzak.
- c) Kreditu eragiketen emaitza.

⁴⁶ Azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, artikulua honi emandako idazkera Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak baliogabetu du. Ediktua 2017ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

⁴⁷ Azaroaren 17ko 13/2014 FORU ARAUAK, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoak, artikulua honi emandako idazkera Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2016ko apirilaren 4an emandako epaiak baliogabetu du. Ediktua 2017ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.



d) Beren eskumen eremuko isun eta zehapenen emaitza.

e) Zuzenbide publiko gainerako prestazioak.

3. Artikulu honetako aurreko zenbakietan ezarritakoaren ondorioetarako, honako Foru Arau honen II. Titulua eta hori gara dezaten xedapenak izango dira aplikagarri, kasu bakoitzean gogoan izan beharreko berezitasunak kontuan direlarik.

4. Elkartezko Udal Entitateen finantz errejimenak ez du, osotzen dituzten Udalek berekizkoa dutena aldatuko.

56. artikulua.

1. Udalezgaindiko Entitateek, udal baten edo batzuren barrutian eragina duten obren egite edo zerbitzuen ezarketa eta zabalkuntzaren zioz kontribuzio bereziak ezartzen dituzten kasuan, haien gobernurako goi Organoak, obrak ukituriko zonaldeak mugatzerakoan edo eta harako zonalde bakoitzarentzat suposatzen duen onura berezia zehazterakoan, zergadunen zuzeneko interesaren eta udal barruti batetan edo zenbaitetan amankomuna izan dadinaren arteko bereizketa egin ahal izango du.

2. Aurreko atalean aipaturiko balizko kasuan, harako Entitateetan integratuta aurkitzen diren Udalek, honako udal tributu honen arau erregulatzailleen arabera, beraiek bilduak izango diren kuota individual ezberdinen ordainketarako zergadun izaera izango dute.

3. Udalei zergadun gisa seinalaturiko kuotak bateragarri izango dira, Udalek beraiek barnesartuta aurkitzen direneko Entitateen obra publiko, instalazio edo zerbitzuei eman izan dizkien dirulaguntza, sorospen edo eta beste edozein eraren bidez sortutako gastuen zioz ezar ditzaketenekin.

57. artikulua.

1. Udalek Mankomunitateek eta gainerako elkartezko Udal Entitateek, eratu izan dituzten Partzuergoei, harako partzuergoen pentsutan diren zerbitzuei dagozkielarik beraiek ezarritako prezio publikoen finkapena iratxiki ahal uango dizkie, prezioek zerbitzuen kostua betetzen ez dutenean eta Estatutuetan bestelakorik esaten ez denean izan ezik.

2. Partzuegoek, entitate partzuetuei proposamenaren eta, prezio publikoek zerbitzuen kostua betetzen dutela aditzera ematen duen azterketa ekonomikoaren kopia bidali beharko diete.



3.⁴⁸ Udalek, mankomunitateek eta gainerako elkartezko udal entitateek eskuordetzan eman ahal izango dizkiete eratu dituzten partzuergoei egokitzat jotzen diren lankidetzaren formalen bidez, partzuergoak bere gain hartutako zerbitzuen prestazioaren zioz udalek ezarritako tasen kudeaketa, likidazio eta bilketa. Partzuergoak haren zenbatekoa eguneratu ahal izango du, derrigorrezko txosten ekonomiko-administratiboan jasotakoaren arabera.

4. Era berean, Partzuergoek, osotzen dituzten Enteen ohizko ekarpenez gainera, jarraiko baliabideok erabili ahal izango dituzte:

- a) Beren ondaretik etorritako sarrerak eta Zuzenbide pribatuko gainerakoak.
- b) Dirulaguntzak.
- c) Kreditu eragiketen emaitzak.
- d) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

IV. TITULUA: UDALA BAINO LURRALDE EREMU TXIKIAGOKO ENTITATEAK

58. artikulua.

1. Udala baino lurralde eremu txikiagoko Entitateek tasak, kontribuzio bereziak zein prezio publikoak ezarri eta exijitu ahal izango dituzte, harako Entitateak arautzen dituzten lege xedapenetan aurrikusitakoaren arabera eta parte direneko Udalaren baliabideetan partehartu ahal izango dute.

2. Aurreko atalean ezarritako eremuan; Entitate hauek, era berean, jarraiko baliabideok erabili ahal izango dituzte:

- a) Beren ondaretik etorritako sarrerak eta Zuzenbide pribatuko gainerakoak.
- b) Dirulaguntzak.
- c) Bere eskumen eremuko isun eta zehapenen emaitza.
- d) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioak.

⁴⁸ 3. apartatu hau zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren III Kapituluko 7. artikulua bi zenbakiak aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2003ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioak izango ditu.



3. Aipaturiko Entitateei, honako Foru Arau honen II. Titulua eta hori garatuko dituzten xedapenak izango zaizkie aplikagarri, kasu bakoitzean gogoan izan beharreko berezitasunak kontutan direlarik.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena.⁴⁹

Zerbitzu bat ematean edo jarduera bat egitean aldizkako prezio publiko bat ordaintzea eskatzen ari denean, eta zerbitzuaren edo jardueraren zirkunstantzien aldaketa dela-eta tasa bat ordaintzea exijitu behar denean, ez da beharrezkoa izango Zergen Foru Arau Orokorrek 98. artikuluan jasotako banakako jakinarazpena egitea, baldin eta subjektu pasiboa eta tasaren kuota bat badatoz ordaintzera behartuta dagoenarekin eta ordezkaturako prezio publikoaren zenbatekoarekin.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar da, nahiz eta tasaren kuota ordezkaturako prezio publikoaren zenbatekoari dagokionez gehitu, beti ere gehikuntza hori egunerapen orokor batekin bat badator.

Bigarrena.⁵⁰ (indargabetua)

Hirugarrena.

1. 1989ko abenduaren 31tik aurrera kenduta geratuko dira, udal tribututan ezarrita aurki daitezten onura fiskal guztiak, direla izaera orokorreko zein bereziko, udal errejimenetik kanpoko xedapen mota guztietan, ezin izango delarik egungo jadanekotasunik aipa Foru Arau honetan erregulaturiko tributuei dagozkienean ez eta Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Ekonomi Ihardueren gaineko Zerga, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zerga, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga eta Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga arautzen dutenetan; aurrekoa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren Foru Arauaren Lehen Xedapen Iraunkorraren 2. zenbakian, Ekonomi Ihardueren gaineko Zergaren Foru Arauaren Lehen Xedapen Iragankorraren 2. zenbakian eta Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren Foru Arauaren Lehen Xedapen Iragankorraren 2. zenbakian ezarritakoaren kaltetan ez dela izango ulertzen delarik.

⁴⁹ 1. xedapen gehigarri hau martxoaren 8ko Zergen FORU ARAU Orokorren amaierako hamargarren xedapenaren 8 zenbakiak aldatu du. Foru arau hau 2005eko uztailaren 1ean jartzen da indarrean (2005-03-17 GAO).

⁵⁰ Bigarren xedapen gehigarri hau azaroaren 10eko 5/1998 Foru Arauak, telekomunikazioetako operadoreek udal zergak ordeintzeari buruzkoaren lehen xedapen indargabetzaileak indargabetu du, 1998ko azaroaren 19tik aurrerako ondorioarekin.



2. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren Foru Arauek onura fiskalak ezarri ahal izango dituzte tributu lokaletan, Foru Arau honen 9. artikuluan ezarritakoaren kaltetan izango ez delarik.

Laugarrena.

Azaroaren 25eko 27/83 Legeko Bigarren Xedapen Gehigarriko 3. zenbakiko lehen atalean xedatzen den guztiaren arabera eta Finantz Publikoen Euskal Kontseiluaren proposamenez, Udal Enteek, beren Organismoek eta beren menpeko Entitateek. Udalezgandiko Entitateek eta Udala baino Lurralde eremu Txikiagoko Enteek, aurrekontu egitura eta kontabilitate publikoaren alorrean erizpide bateratsuak ezartzeko beharrezko izan daitezen arau teknikoak emango dira Foru Araua onartzen denetik kontaturiko 3 hilabetetako epearen barruan.

Aipatu arauak, aurreko atalean aipaturiko Enteek sistema berrira egokitzeko jarraikako epea ezarri beharra ikusi behar dute, epe hori ez delarik inoiz urtebete baino beheragokoa izango. Era berean, arautegi berriaren jarraikako ezarpenak, beraren benetako ezarketan eragina izan ahal dezaten Udalen zertzelada guztiak kontutan hartu beharko ditu.

Bosgarrena.⁵¹

1. Udalerriak beren artean elkartzen direnean edo beste entitate publiko edo menpeko organismoekin bat egiten dutenean jarduera ekonomikoetarako lurzorua erosi, sustatu, hiritartu edo mantentzearen, hitzarmenak egin ahal izango dituzte lurzoru horietan kokatutako ondasun higiezinetatik nahiz bertan egiten diren jarduera ekonomikoetatik datorren zergabilketa zertarako erabili finkatzeko. Honako hau adostu ahal izango dute:

a) Eratuko den entitate kudeatzailearen sarrera arrunt gisa deskribatutako helburuak finantzatzeko erabiltzea, hitzartzen den eran, zenbatekoan eta epean, beti ere bestelako finantzazio iturriak adostea eragotzi gabe.

b) Kuotetan banatzea, erabakiko diren proportzio, epe, modu eta gainerako baldintzetan. Kuoten banaketak ezingo du izaera mugagaberik eduki, eta ezingo da udalez kanpoko entitateen alde edo hertsia-hertsian udal izaerarik ez duten sozietate publikoen alde erabaki.

2. Aurreko apartatuan aipatu den zergabilketa ondoko zerga eta tasa hauek guztiek edo hauetako batzuek eratuko dute bakar-bakarrik:

a) Ondasun Higiezinen gaineko Zergak.

⁵¹ Bosgarren xedapen gehigarri hau toki entitateen zerga sistema aldatzen duen martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUAREN 1.artikuluaren bost zenbakiak sartu du. Foru Arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartuko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrerako sortzapena duten egitate ezargarrietan izango du eragina. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25ekoa).



- b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergak.
- c) Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergak.
- d) Eraikitze, irekitze nahiz lurzorua eta zorupea erabiltzeko lizentziengatik ordaindu beharreko tasek.

3. Xedapen gehigarri honek aipatzen dituen kasuetan, eta zerga alorrean beharrezkoa den koordinazio eta harmonizazioaren ondorioetarako, ondoko irizpideei jarraituko zaie:

a) Lurzoruak bi udalerritan edo gehiagotan eta elkarren segidan kokaturik daudenean, udal bakoitzak karga tasa, koefiziente edo indize berdinak ezarriko ditu horietarako, hitzarmenaren xede diren tributuei dagokienez, eta horiek desberdinak izaten ahalko dira udalerraren gainerakoan aplikatzen direnen aldean.

b) Lurzoruak udalerrri bakarrean kokaturik badaude, udalak karga tasak, koefizienteak edo indizeak ezarriko ditu horietarako, hitzarmenaren xede diren tributuei dagokienez, eta horiek desberdinak izaten ahalko dira udalerraren gainerakoan aplikagarri direnen aldean.

c) Aurreko letretan xedatutakoaren ondorioetarako, hitzarmenetan koordinazio prozedura egokiak finkatuko dira, udalen arteko kontsultak direla medio, hitzarmenaren xede diren tributuen karga tasa, koefiziente edo indizeak zein izango diren erabakitze.

4. Lurzoruak Gipuzkoako zein udalerritan dauden kokatuta, eta bertako udalek izango dituzte hitzarmenaren xede diren tributuek kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzeko ahalmenak.

Aurrekoa hala izanik ere, Gipuzkoako udalek Foru Aldundiaren esku utzi ahal izango dituzte aurreko paragrafoan aipatutako ahalmenak, bidezko hitzarmena izenpetu ondoren.

Zerga alorreko ahalmenak ezingo dira inoiz entitate kudeatzaileen esku utzi agintea erabiltzea dakartenean.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.

1990eko urtarrilaren 1a baino lehen, Foru Arau honetan aipaturiko Entitateek tributuen ezarketa eta antolamendurako erabaki zehatzak hartu beharko dituzte, honako Foru Arauan barnebildutako xedapenen arabera, tasa eta kontribuzio bereziak eskatu ahal izateko. Era berean, eta aipaturiko data baino lehenago, Korporazio ezberdinek erabaki zehatzak hartu beharko dituzte, Foru Arau honetan barnebildutako xedapenen arabera prezio publikoak ezarri ahal izateko. Bien bitartean eta jakinerazitako data arte, aipaturiko Entitateek tasa eta



kontribuzio bereziak eskatzen jarraitu ahal izango dute, udal errejimen alorrean indarrean dauden lege xedapenetan barnebildutako araei jarraiki.

1989ko abenduaren 31n Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzeko beharkizuna betetzea baino faltako ez balitz, beraz 1990eko urtarrilean zehar bete beharko da, aurreko pasarteetan aipatzen deneko data Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den egunera aldatuko delarik.

Bigarrena.

Honako Foru Arau honek, duen aplikazioaren ondorioz, aipatzen dituen Udal Entitateen egungo tributuen ezabaketa eta, baita ere, tributu horientzat aginduzko diren xedapenen indargabeketa, Administrazioak, aipatu xedapenen arabera, aurretik sortutako zorrak exijitzeko duen eskubidearen kalterik gabe ulertzen dira.

Hirugarrena.

Kreditu Eragiketei buruz II. Tituluko III. Kapituluaren aurrikusitakoa garatzen ez den bitartean, 1983eko abenduaren 30ko Batzar Nagusietako Erabakietan aurrikusitako arau arau organiko eta prozedurazkoek indarrean segituko dute.

INDARGABETZE XEDAPENA

1. Honako Foru Arau hau indarrean sartzen den datatik aurrera, bertan ezarritakoaren aurka doazen maila bereko nahiz beheragoko xedapenak indarririk gabe utziko dira.
2. Aurreko atalean xedatutakoa Foru Arau honen Xedapen Iragankorretan ezarritakoaren kalterik gabe ulertzen da.

AZKEN XEDAPENA

1. Foru Diputazioari baimena ematen zaio honako Foru Arau hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapenak emateko.
2. Foru Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean.



ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak 1998 irailaren 18tik aurrera izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***Irailaren 15eko 73/1998 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia uztailaren 13ko 25/1998 Legeak, Tasa estatal eta lokalen legezko araudia aldatu eta ondarezko prestazio publikoak berrantolatzeak, jasotako zerga xedapen batzuetara egokitzen duena. (1998-09-18ko GAO).***
 - 3. artikulua 20., 21., 23., 24., 25., 26., 27., 43., 45., 47., 48., 49. artikulua eta lehen xedapen gehigarria aldatu ditu.
- ***Azaroaren 10eko 5/1998 FORU ARAUA, telekomunikazioetako operadoreek udal zergak ordaintzeari buruzkoa.(1998-11-18ko GAO)***
 - Lehen xedapen indargabetzaileak bigarren xedapen gehigarria indargabetu du
- ***Gipuzkoako Lurralde Historiko Zerga Neurriei Buruzko abenduaren 27ko 4/1999 FORU ARAUA.(1999-12-31ko GAO)***
 - 8. artikulua 8. artikuluari azken parrafo bat gehitzen dio, eta 10. artikulua aldatu du, 13. artikulua 2. apartatua, 14. artikulua 2. apartatua, 18. artikulua 2. apartatua, 20. artikulua 1. apartatuko A) letra eta 50. artikulua aldatzen ditu.
- ***Martxoaren 19ko 4/2003 FORU ARAUA, toki entitateen zerga sistema aldatzen duena. (GAO 57 zki.a, 2003-03-25koa).***
 - Bere 1. artikulua 9. artikulua, 10. artikulua, 20. artikulua 2 apartatuko s) letra eta 24. artikulua 1. apartatua aldatu ditu eta bosgarren xedapen gehigarria sartu du.
- ***Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).***



- Bere 7. artikulua 24. artikularen 1 apartatuko c) letra eta 57. artikularen 3 apartatua aldatu ditu.
-
- ***Gipuzkoako Lurralde Historikoko martxoaren 8ko Zergen 2/2005 FORU ARAU Orokorra (2005-03-17 GAO).***
 - Bere amaierako hamargarren xedapenak honako prezeptu hauek aldatu ditu: 7. artikulua; 11. artikulua; 12. artikulua; 13. artikulua, 14; artikularen 1. apartatua; 23. artikulua; 31. artikulua eta lehen xedapen gehigarria.
- ***8/2006 FORU ARAUA, abenduaren 1ekoa, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituen (2006-12-12ko GAO)***
 - 5. artikulua 8. artikulua aldatzen du.
- ***Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituen (2008-07-11ko GAO).***
 - 5. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 10. artikulua.
 - 14. artikuluko 1. apartatua.
- ***Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUA (2011/12/27ko GAO).***
 - Bere 6. artikulua 20. artikuluko 3 apartatuaren i) letra aldatzen du.
- ***2012ko abenduaren 27ko 13/2012 FORU ARAUA, zerga alorreko zenbait aldaketa onartzen dituen (2012/12/28ko GAO)***
 - Bere 5. artikulua 20. artikularen 3. apartatuaren h) eta i) letrak eta 25. artikulua aldatzen ditu.



- **2013ko otsailaren 8ko 1/2013 FORU ARAUA, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena (2013/02/12ko GAO).**
 - Amaierako lehenengo xedapenak 52. artikulua aldatzen du.

- **13/2014 FORU ARAUA, azaroaren 17koa, Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzkoa (2014/11/20ko GAO).**
 - Bere 4. artikulua prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 51. artikulua.
 - 52. artikulua
 - 53. artikuluko 1 apartatua.
 - 53 bis eta 53 ter artikulua gehitzen ditu.

- **8/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2016. urterako aurrekontu orokorrak onartzen dituen (2015/12/30eko GAO).**
 - Bere amaierako bigarren xedapenak prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 51. artikuluarik 3. apartatua gehitu dio.
 - 52. artikuluarik azken paragrafoa gehitu dio.

- **2016ko azaroaren 14ko 4/2016 FORU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sistema Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legera egokitzekoa (2016/11/18ko GAO).**
 - 5. artikulua 18. bis artikulua gehitu du, 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

- **Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren administrazioarekiko auzien salak 2016ko apirilaren 4an emandako epaia. Ediktua 2017ko martxoaren 7ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da.**



- Epaiak Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzko foru arauaren zenbait artikuluko eta xedapen baliogabetu ditu (2014/11/20ko GAO), zehazki, prezeptu hauetan egindako aldaketei dagozkienak:
 - 51. artikuluko 1. eta 2. apartatuak.
 - 52. artikuluko lehen paragrafoa.
 - 53. artikuluko 1. apartatua.
 - 53. bis eta 53. ter artikulukoak.
- **3/2019 FORU ARAUA, otsailaren 11koa, 2019. urterako zerga neurriak onartzen dituena (2019/02/20ko GAO).**
 - Bere 8. artikuluko 4. apartatua aldatu du eta aurreko 4 eta 5 apartatuak 5 eta 6 apartatuak bihurtu ditu.
- **1/2023 Foru Araua, urtarrilaren 17koa, 2023. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituena. (2023/01/23ko GAO).**
 - Bere 7. artikuluko 3. apartatu bat gehitzen dio 9. artikuluari.